

# TXABOLATEGI BERTSOLARIA, ANTZINAKO BERTSO DESAFIO HANDIENEN PROTAGONISTA

Unai Agirre

Urumea erreka bertsolarien kabi izan dela esaten duena ez da oso oker ibiliko, historiari begira zerrenda opa-roa osatuko baitu. Errio horrek zenbat bertso ez ote du eraman?

Baina eraman ez ezik geratu ere egin dira batzuk, eta guganaino iritsi den aipamenik zaharrena da Jose Joakin Erroizenea Intxauspe Txabolategi bertsolariarena.

Orduko kroniken arabera Gipuzkoako bertsolaririk onenen artean zegoen Txabolategi, Fernando Amezketarra, Amezketa bertako Zabala, Tolosako Altamira eta abarren artean. Fernando eta bien arteko desafio-bertso hauek famatuak dira, bederatzi puntuko motzean, Txabolategi eta Hernaniko beste bertsolari bat Lekunberri besta bi bertsolariarekin aritu eta egun gutxira boteak (entzuleen artean omen zen Ametza bertsolaria, minduta, Txabolategik Amezketarrak goratu zituela eta).

## **Txabolategik:**

*Fernando ta Zabala  
Herri batekoak  
Badakit zeratela  
Koplari bapoak  
Ez izanagatikan  
Zuek hainakoak  
Gu ere egin ginduzen  
Zerbait Jaungoikoak  
Lehengo apustukoak  
Napar herrikoak  
Lekunberrikoak  
Ziraden pijoak  
Askoz hobeak gaituk  
Hernanikoak.*

## **Fernandok:**

*Ametza omen dago  
Gizon harritue  
Itxuraren kontrako  
Entenditue  
Honetxek jartzen digu  
Kontu luzitue  
Gu gehiago garela  
Ezin sufritue  
Kantuzko pleitue  
Behartzen gaitue  
Galduko zaitue  
Jarri nahi gaitue  
Amezketak zedukak  
Kantuz kreditue.*

## **Hariari tiraka.**

1769ko martxoaren 2an jaio zen Jose Joakin Erroizenea, Ereñotzuko Txabolategi baserrian. Hil zeneko data

garbirik ez dago, baina jakinekoea da nola hil zen, aurrerago azalduko dugun moduan. Bestalde, Tolosan hil zela diotenak ere badira, gaizkitu zenean senideren batengana joanda edo, baina datu hau baieztatzen duen agiririk ez da azaldu orain artean. Bere bizitzan hamaika bertso botea behar zuen eta gutxi batzuk ahoz aho iritsi dira ia gaur arte, harik eta Antonio Zabalak Auspoa saileko liburuetan (*Txabolategiri, Elkoro eta Leunda Bertsolariak*, 142 zenbakia; eta *Pernando Amezketa bertsolaria*; 54 zenbakia) eta Juanito Dorronso-rok Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko *Bertsotan* liburuan argitaratu zituzten arte. Sail horiek izan dira artikuluen iturri eta gehiago nahi duenak bertara jo dezake.



Ereñotzuko Txabolategi baserri zaharra. Hemen jaio zen bertsolaria.



Aipatu bezala, Txabolategi baserrian jaio zen bertsolaria eta beste hiru senide ere bazituen: Maria Esteban 1763ko abuztuaren 3an jaioa, Juan Bautista 1765eko uztailaren 7an jaioa eta Migel Jose 1771eko uztailaren 18an jaioa. Gurasoak berriz Frantzisko Erroizenea eta Sebastiana Intxauspe. Datu hauek Antonio Zabalak egindako lanari zor dizkiogu, antzinako bertsolari honen arrastoak ezkutatatu samarturik baitaude dagoeneko.

Denborak ehundutako oihal trinkoa saretze aldera, liburuetan begiratu eta galdezka aritu gara Txabolategi baserrian gaur egun bizi den Telesforo Oiarbideri, gaur egun Elkano kalean bizi den Alkatxuingo Fernando Erroizeneari eta Bortuluene-

Bordan bizi den Jose Maria Pagolari. Zenbait argibide lortu ditugu: Txabolategi ezkondu eta Oindi azpira joan zen, Osiñagako Bortuluene Bordara. Ondorenean ere familiako jendea bizitu izan zen Txabolategin, harik eta Ramon Izagirre Erroizenea eta Maria Oiarbide Zuaznabar senar emazteak eta Martina eta Mariano seme-alabak Ubarrotora bizitzera joan ziren arte. 1914an erosi zuten ordurako hutsik zegoen Txabolategi baserria sei mila pezetan, Larre Gaingo Antonio Oiarbide eta Etxola Berriko Maria Zabaleta senar emazteek; 5 senide bertan jaio ziren, tartean gaur egun bertan bizi den Telesforo Oiarbide bera. Orain lau urte Txabolategi berria egin zuten aldamenean eta zaharra bota.

Jose Joakin Erroizenea ezkondu zenean Oindi azpiko Bortuluene-Bordara joan ziren bizitzera, Osiñaga bailarara, eta hargatik deitzen zaio gaur egun Txabolategi baserri horri ere, bertsolariak eramandako izena hartu baitzuen. Gaur egun bertan bizi dira Jose Maria Pagola Alberdi Erroizenea eta Mirari Pagola aita-alabak, Txabolategi bertsolariaren ondorengoak. Jose Mariak zenbait azalpen eman dizkigu, besteak beste Bortuluene-Borda izena kanpoan idatzia izan duela baserriak, baina izen horrekin inork ezagutzen ez, eta Txabolategi letreroa dauka jarria gaur egun fatxadan. Jose Maria Pagolak gogoan du nola burdinazko ohe bat bazen baserrian gurgil eta guztikoa, eta aitak nola esaten zion: "hau bertsolariarena huan". Etxean, arbaso bertsolariaren kontuak askotan entzun izan dituzte, baina gutxi dira gaur egunera iritsi direnak. Hori bai, azken hatsetan Txabolategik botatako bertsoa ederki kantatzen du Jose Maria Pagolak, soka erabat eten ez denaren seinale.

Jaiotetxea Txabolategi bada ere, garai hartako zenbait idatzitan Txabolategi izenarekin azaltzen da bertsolari handia, izenak izan lezakeen bilakaeraren lekuko.

### **Desafioa, lau mila lagun en aurrean.**

Txabolategik eta Amezketa Zabalak badute bertso desafio famatu bat, 1801ean Billabonako plazan jokatu. Ikusmin izugarria sortu zuen desafio honek, txapelketa guztien sorburu izan litekeenak, eta Billabonako plazan lau mila lagunetik gora elkartu ziren. Epailan lanetan ere izen handiko adituak zituzten: Fernando Amezketa, Zabala bertsolariak eramana; Aizarnazabalgo sakristaia, Txabolategik eramana; eta D. Jose Mendizabal Tolosako apaiza, Billabonako alkateak aukeratua. Bertso desafio honek gaur egungo herri kirol apustu kutsua zuen, bi lagun elkarren kontra eta bosna ontza urre botata jokatu baitzen. 1824an Iztuetak honela idazten du Gipuzkoa'ko dantza gogoangarriak liburuan:

"Datorren otsailean izango dira 22 urte, Billabonako plazan jokatu zutela bertso-



*Telesforo Oiarbide Ereñotzuko Txabolategi zaharreko pareta zen tokian, Txabolategi berria atzean duela.*



*Osiñagako Txabolategi baserria, bertsolariaren bizileku izandakoa.*





Jose Maria Pagola Alberdi Erroizenea eta Mirari Pagola aita-alabak.

tan bosna ontza urre, lehendanaz apustu eginik, Zabala amezketarrak eta Txabalategi Hernanikoak; zeinean izandu nintzen juezetarako Zabalak bilatua; baina egun batzuek aurretik eritasun txiki batek hartu ninduelako, ez nuen zerbitu, eta nere orde, bere herritar Fernando eraman zuen. Baita Txabalategik ere Aizarnazabalgo elizaina. Eta Billabonako alkate jaunak erabakitzaille D. Jose Mendizabal apez sonatu hura ipinirik, lau mila eta gehiago pertsonaren aurrean kantatu zuten bi orduz jokalariek, apostua egin zuten bezala; bata besteari asmatu ahal zitzakeen hitz-gairik nekezenak iriak, nondik eta nola nahaspilatuko zuten ahaleginik haundiena egiten zituztela.

Guztiz ere, hain zuzen eta egoki eman omen zituen nork bere hitz-neurtuak, non apustuko bi orduak betetzean, juezak elkarrengana batu baino lehenago altxatu omen zen plazako jende guztia, deiadarrez esaten zutela, jokalaria biek kantatu zutela guztiz ongi eta hutsaldirik gabe... orduan irten omen ziren juezak plazaren erdira eta bertso hauek kantatu omen zituzten..."

#### Aizarnazabalgo sakristauak:

Txabalategi eta Zabala gaztia,  
askok desio zuten kantuz ikustia.  
Atsegin haundietan geldida jendia;  
bata adinbat egin behar degu bestia

#### Fernandok:

Ezin gentzake bada beste gauzik egin;  
nik gogoan neukana zuk dezu hitzegin.  
Utzi behar ditugu biak berdin berdin,  
Gipuzkoa guztiak har dezan atsegin.

#### D. Jose Mendizabalek:

Jaunak, mintzo zerate grina txarrik gabe,  
pozkidatu nauzute txit asko, halere:  
egia esateko ipiniak gaude  
Bata bezain bestea Kantari onak daude.

Galtzailerik gabeko desafioa izan zen beraz Billabonakoa, edo bi irabazlekoa, denboraren joanak erakutsi duenez.

Baina, aurrerago beste desafio bat ere jokatu zuten Tolosan, Inauterietako azken arratsaldean, orduan bi bitara: Txabolategi eta Tolosako Altamira batetik, eta Fernando Amezketarra eta Zabala bestetik. Plaza zaharreko baranda banatara igota kantatu omen zuten arratsalde osoan, ilundu artean. Badirudi orduko hartan ere berdinean bukatu eta jendea txoratzen utzi zutela. Horiek dira gaur arte iritsi diren Txabolategiren desafioak, baina gehiago ere izango ziren seguruenera.

#### Otso ehiztariei kantatuak.

Antonio Zabalak idatziriko liburuak biltzen ditu Ereñotzuko Jose Oiarbide zenaren ahotik jasotako Txabolategiren bertsoak. Dirudienez, Arano-ko mendietan otsoren batek ardiak hiltzen zituen, eta ehiztari mordo bat bildu eta otso ehizara irten zuten mendira. Tartean bi apaiz ere ba omen ziren, besteek baino eskopeta dotorea-goekin. Bidean Txabolategirekin topo egin zuten nonbait eta bi bertso dotore hauek bota omen zizkien:

#### (1)

Aranoko ehiztariak urumiatarrak,  
kolore biñakuak zenituzten armak:  
zarrallak beltzak eta kañoiak nabarrak  
ederragua zeukak Belaundia jaunak  
dezente egon bihar dik hola joango danak.

#### (2)

Miel Domingo jauna Don Bitor apaiza,  
otsua harrapatzen duda gabe gaitz-ta;  
artzai hoiengandikan Errenkura maiz-ta:  
ardia edo bildotsa Jan diela aixa;  
dituenari beti galdu biha zaizka.



### **Pastor Izuelari zirika.**

Agustin Arruti Larragoien Pastor Izuela garai hartako beste bertsolari handietako bat zen, Aiarra. Behin Hernanira etorrita bertso hauek kantatu omen zizkioten elkarri Txabolategik eta biak, beste askoren artean seguru asko. Zenbait kontakizunek diote, Hernaniko aberats batek prestatu zuela bi bertsolarien arteko desafioa, Txabolategi Izuela baino hobea zela iritzita. Baina aldi honetan ere onena zein zen erabaki ezinda geratu omen ziren. Berez gaur arte iritsi diren bertsoetan izenak aldatuta agertzen dira, baina hemen zuzenduta daude, lanak errazte aldera. Hauek dira gorde-rik dauden bertsoetatik bost (guztiak ez dira elkarren segidakoak), hiru puntuko handian:



Felipe Erroizenea eta Pakita Miranda senar-emazteak, Pello Erroizenea ilobarekin.

(1)

#### **Txabolategik:**

Aizu Agustin Izuelako  
ahuspez lurrean jarririk,  
bizkarra ere makurtu zazu  
bakartasunez beterik,  
admiraturik aurkitutzen naiz  
ez dezulako andrerik.

(2)

#### **Izuelak:**

Jose Joakin, zer egingo det  
baldin modurik ez bada?  
Lan horregatik korritu ditut  
Bizkaia eta Araba,  
zure esperantzan egongo naiz ta  
hazi zaidazu alaba.

(3)

#### **Txabolategik:**

Nere alabai suerte onen bat  
Ein al baneza munduan,  
Egingo diyot enkargu hori  
Etxera nuan orduan:  
Ia ezkontzeko pentsamendurik  
Ote dadukan buruan.

(4)

#### **Izuelarena:**

Hiru osaba Parisen dauzkat  
Bonaparteri serbitzen,  
haien umiak, zazpi lehengusu,  
gobernadore Cadizen,  
donzellatasun hau zertaino dan  
nik ez diyot entenditzen.

(5)

#### **Txabolategik:**

Gure etxian lau ollo dira,  
hiruk daukate kiyua,  
oilarra berriz haien ondoren  
tantaian gora iyua,  
adios jaunak beste bat arte  
pasa da dibersiyua.

### **Heriotza.**

Bertsotan bizi eta bertsotan hil, halaxe egin zuen Txabolategi handiak. Harrobian lan egiten omen zuen, baina ez zen etxetik oso aparte ariko, bazkaria alabak eramaten baitzion otarrean. Otarrean botila esne omen zeramakien alabak gainerako jakien artean eta erori eta muturretik hautsi omen zitzaion. Aitak botila hartatik esnea edandakoan kristal izpiren bat ere tragatu egin zuen, nonbait, eta horretatik hil zen. Hil aurrean bertso famatu hau kantatu zuen:

(1)

Espezia txarren bat  
sartu zait barrenen,  
bildur naiz nere bila  
etorri ote den;  
San Pedrok sar nazala  
portalian arren.  
Hala izan dadila,  
biba Jesus amen.